

## Poligono industrial berriak dijoaz 'Orbegozon' eta Akerregin

■ Orbegozon babes ofizialeko pabeloiak egingo dituzte, batetik; eta, 'Mendia' eta 'Ferronia' enpresak lekuz aldatzeko pabeloiak bestetik ■ Akerregin, berriz, bonberoak eta kamioientzat aparkalekua dijoaz.



Akerregin joango da eskualdeko Bonbero Parkea.

AKERREGIN eta Orbegozon proiektu enpresarial berriak daude martxan. Hernaniko industriari eta sortuko dituen lanpostu berriei begiratuta, *Industrialdea* proiektua da garrantzitsuenetakoa.

*Industrialdea* proiektuak enpresentzako babes ofizialeko pabeloiak egitea ekarriko du Orbegozon. Hernaniko Udalak eta Foru Aldundiak subentzionatutako proiektua da eta 15.460 metro karratu pabeloi industrial izango dira (Orbegozoko partzela erdia).

### 24 ENPRESA ETA 150 LANPOSTU

*Industrialde*arako 24 enpresa etorriko dira, Mertxe Etxeberriak udal aldizkariari esan dionez. Enpresa horietatik gehienak berriak dira Hernanin; besteak, lehendik herrian daudenak dira, baina, haunditu edo berrikuntzak egin behar dituztenak. 24 adjudikatu baldin badira ere, eskaera ia doblea izan omen da.

*Industrialde*ara etorriko diren 24 enpresa horiek 1.000 milioi inbertituko dituzte eta

denera 380 lagun arituko dira lanean. Horietatik 150 lanpostu berriak izango dira. Epeak ondo betetzen baldin badira, enpresa horiek irailean hasiko dira lanean.

Beste zenbait enpresa, berriz, lekuz aldatu eta Orbegozora etorriko dira. *Mendia* enpresa Antziolatik Orbegozora joango da, herritik industria lekura; eta *Ferronia* enpresa Andoaindik etorriko da.

Bestalde, Floridako poligonotik Orbegozora dijoan zubia egiteko dute, errio gainetik. Hartara, Floridako poligonoan ibili behar duten kamioiek ez dute Karabel barrutik pasa beharrik izango.

### INDUSTRIALDEA PROIEKTUA

⇒ Industrialde berrira 24 enpresa etorriko dira.

⇒ Enpresa horiek 1.000. milioi inbertituko dituzte.

⇒ Industrialdean 380 langile arituko dira; horietatik 150 lanpostu berriak izango dira.

⇒ Floridako poligonotik 'Orbegozora' zubia egingo dute kamioiek karabel libratzeko.

**BONBEROAK ETA KAMIOI APARKALEKUA**  
Akerregin ere bi proiektu haundi badijoaz: eskualde osorako Bonbero Parkea eta kamioientzako aparkalekua.

Suhiltzaile Parkearena orain dela urte batzuetako kontua da. Suhiltzaileak Diputazioaren kompetentzia dira, ordea, eta oraindik ez da esan zerbitzua noiz jarriko den martxan.

Kamioi aparkalekua Gipuzkoako Foru Aldundiak, GUITRANS (Garraio Patronalak) eta SINTRAGI garraio-lari sindikatuak finantziatuko dute; eta behin martxan jartzen dutenean, gestioa ere beren esku geldituko da. □

### 3/4 Plataformak kontzentrazioa du gaur Plaza Berrian

KONDENAREN 3/4ak bete dituzten presoen askatasuna eskatzeko kontzentrazioa izango da gaur Plaza Berrian, arratsaldeko 19:00etan.

Une honetan lau preso hernaniar daude kondenaren 3/4ak beteta oraindik espetxean, Xabier Arnaiz, Kepa Aira, Joxan Pagola *Beltza* eta Pakito Lujanbio. □



Hirulaurden plataformak antolatutako kontzentrazio bat.

### TXANTXANGORRI Plater tiraketa larunbatean Santa Barbaran

■ Tirada irekia izango da larunbatekoa.

TXANTXANGORRI Elkar-teak antolatuta Plater tiraketa da larunbatean Santa Barbaran. Izen ematea goizeko 08:30etatik 09:30etara izango da, eta 1.000 pzta kostako da (platerak barne).

Tirada hau irekia da (lizentziak dituen edonork hartu dezake parte) eta kategoria bakarra jokatuko da. Guztira 30 platera izango ditu tiratzaile bakoitzak. Irabazleak bi *bogavante* eta bi txakoli botella eramango ditu. Bigarren postutik bederatzigarrenera kartutxo kajak dituzte sari. □



Orbegozon, atzo, poligonorako sarrera berritzen.





**GALARRETA JAIALKI**  
FRONTOIA  
Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua ZIGANDA - URKO / ITURRALDE - BADIOLA
- ⇒ 2. partidua EZKURRA - TXIKURI / ZEBERIO II - LIZASO
- ⇒ 3. partidua MATXIN - AIZPURU / KALONGE - IRIARTE
- ⇒ 4. partidua BEREZIARTUA-URRETABIZKAIA II / IRIBARREN-MENDIZABAL

